

EUSKAL IZEN-ABIZENAK
EUSKAL GRAFIAZI

Artetxe, Agirre, Celaya, Ibarlucea,
Echeverria, Coro, Carmelo...

Arteche, Aguirre, Celaya, Ibarlucea,
Echeverria, Coro, Carmelo...

Zure abizena horietako bat al da? Zenbat aldiz pentsatu duzu izena edo abizena euskaratu beharko zenukeela? Zergatik ez duzu idazten euskal izen-abizena euskal grafiaz?



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



ELGOIBAR ZARRAK

Zure izena edo abizena, leku guztietan eta modu ofizialean, euskaraz agertzea nahi baduzu, hiru urratsetan, erraz-erraz egin ahal izango duzu.

1) Zoaz Bake epaitegira edo Erregistro zibilera, eta esan zure izena edo abizena euskal grafiaz jarri nahi duzula.

2) Han emango dizuten orria zure datuekin bete.

3) Eskaera egiteko honako agiri hauek eraman beharko dituzu:

- **NANaren fotokopia.** Adingabea bazara, gurasoena ere beharko duzu.
- **Hitzez hitzeko jaiotza agiria.** Inskribatuta zauden Bake epaitegian eskatu beharko duzu.
- **Errolda Agiria.** Adingabea bazara, gurasoena ere beharko duzu. Errolda agiria HAZen eskuratu ahal izango duzu, edo bestela, on-line Elgoibarko Udalaren webgunean, tramiteak online atalean.
- **Familia liburuaren fotokopia,** ezkondua baldin bazaude edo seme-alabak badituzu.
- **Seme-alaben NANaren fotokopia,** 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.

Izenen edo abizenen idazkerari buruzko zalantzak argitzeko, egin kontsulta Interneten **Euskaltzaindiaren** onomastika atalean:

<https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/onomastika>

● **Nora jo tramiteak egiteko?**

HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua): errolda agiria eskuratzeko.

Santa Ana 2, behea, 943741050, astelehenetik ostegunera 7:30etik 15:30era, eta ostiraletan, 7:30etik 14:30era. Telematikoki www.elgoibar.eus atarian.

Elgoibarko Bake Epaitegia: jaiotza ziurtagiria eskatzeko eta/edo tramiteak egiteko. Udaletxea, 1. solairua, eskuina, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

● **Informazioa eta aholkularitza:**

Udaleko Euskara Saila 943 744 366 euskara@elgoibar.eus

Elgoibarko Izarra 943 741 626 elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

